



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko abenduaren 10a

141. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### A SAILA:

##### **Foru-lege proiektuak:**

- 11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua. Osoko Bilkurak osoko zuzenketak ezetsi ditu (2. or.).
- 11-24/LEY-00012. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko. Osoko Bilkurak osoko zuzenketak ezetsi ditu (2. or.).

#### E SAILA:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- 11-24/MOC-00129. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea bete dezan eta, horretarako, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2025eko Plan Operatiboan jaso ditzan CERMINekin erdietsitako akordio bidez lehenesten diren gaien erregelamenduzko garapena. Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak onetsi du (3. or.).
- 11-24/MOC-00051. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan itxaron-zerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, bere barne hartuta egiturazko neurriak abiaraztea. Erabakiaren betetzeari buruzko erabakia (3. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- 11-24/CIE-00002. Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen ote den kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko batzorde berezi bat eratzea. Osoko Bilkurak onetsi du (4. or.).

---

**A saila:**  
**FORU-LEGE PROIEKTUAK**

---

**11-24/LEY-00011. 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektua**

*OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETAK EZETSI DITU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, ezetsi egin ditu 2025erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru-lege proiektuari Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioek eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako osoko zuzenketak.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 151.6 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2024ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-24/LEY-00012. Foru-lege proiektua, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko**

*OSOKO BILKURAK OSOKO ZUZENKETAK EZETSI DITU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko azaroaren 28an egindako bilkuran, ezetsi egin ditu zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeko foru-lege proiektuari Unión del Pueblo Navarro eta Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioek eta Vox Nafarroa foru parlamentarien elkarteak aurkeztutako osoko zuzenketak.

Horrenbestez, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 151.6 artikuluan xedatuarekin bat, proiektua Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeari igorri zaio.

Iruñean, 2024ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**11-24/MOC-00129. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea bete dezan eta, horretarako, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2025eko Plan Operatiboan jaso ditzan CERMINEkin erdietsitako akordio bidez lehenesten diren gaien erregelamenduzko garapena**

*LEHENDAKARITZA ETA BERDINTASUN BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan xedatua betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritza eta Berdintasun Batzordeak 2024ko azaroaren 26an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea bete dezan eta, horretarako, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2025eko Plan Operatiboan jaso ditzan CERMINEkin erdietsitako akordio bidez lehenesten diren gaien erregelamenduzko garapena. Erabakia eragin zuen mozioa Nafarroako Alderdi Popularra talde parlamentarioko María Isabel

García Malo andreak aurkeztu zuen, eta 2024ko urriaren 25eko 122. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzko azaroaren 28ko 31/2022 Foru Legea bete dezan eta, horretarako, Irisgarritasun Unibertsalari buruzko 2025eko Plan Operatiboan jaso ditzan CERMINEkin erdietsitako akordio bidez lehenesten diren gaien erregelamenduzko garapena”.

Iruñean, 2024ko azaroaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**11-24/MOC-00051. Erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan itxaron-zerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, bere barne hartuta egiturazko neurriak abiaraztea**

*ERABAKIAREN BETETZEARI BURUZKO ERABAKIA*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 125. artikulua ezarritakoa betez, honako erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da:

“Osasun Batzordearen ustez Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak bete egin du Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak 2024ko

apirilaren 18an onetsitako erabakia, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroan itxaron-zerrendak murrizteko plan integral bat aurkez dezan, bere barne hartuta egiturazko neurriak abiaraztea”.

Iruñean, 2024ko abenduaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-24/CIE-00002. Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen ote den kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko batzorde berezi bat eratzea**

*OSOKO BILKURAK ONETSI DU*

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2024ko azaroaren 21ean egindako bilkuran, onetsi du Pobreziaren eta Desberdinkeriaren aurkako Nafarroako Ituna (2021-2030) betetzen ote den kontrolatzeko eta haren jarraipena egiteko batzorde berezi bat eratzea.

Erabaki hau argitara dadin agintzen da, Legebiltzarreko Erregelamenduko 125. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2024ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---